

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

KLIKASI proiektuak modu egoki batean funtzionatzeko, beharrezkoa izanfo da hainbat jarduera aurrera eramatea, balio-proposamena sortu eta erabiltzaileei modu eraginkorrean erantzutea ahalbideratuko digutenak.

Hasteko, plataforma edo sareko jarduerak izango ditugu: webgunea eta aplikazioa garatu, mantendu eta etengabe eguneratuta izatea, baita datuen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzea ere. Jarduera hoiertako batzuk kanpoko enpresen esku utziko ditugu, baina plataformaren funtzionamenduraren ezagutza nagusia KLIK enpresaren barruan mantenduko da.

Bestalde, ekoizpenarekin lotutako jarduerak izango ditugu. Hauek edukien sorrera, anotlaketa eta egiaztapenekin zerikusia duten jauderak izango dira. Hala nola, ikasteko material fidagarriak eta erabilgarriak eskaintzea, proiektuaren balio-proposamenaren oinarri nagusia direlako.

Horrez gain, arazoak konpontzeko jarduerak ere funtsezkoak izango dira, non, erabiltzaileen zalantza teknikoak edo erabilerarekin lotutako arazoak konpontzeko laguntza zerbitzu bat eskainiko den.

Jarduera horien guziten arteko lehentasuna argia da: plataformaren funtzionamendu egokia eta edukiaren kalitatea bermatzea, KLIKASI proiektuaren arrakasta eta jasangarritasuna ziurtatzeko.